

Ordutegi murrizketak erdiguneko oinezkoen alderdietatik bizikletaz zirkulatzeko alkate dekretua

Argitalpen data
2014.01.31

Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren 23. artikulua dioenez, arau orokor gisa, debekatuta egongo da ziklo eta bizikletekin oinezkoen alderdietan barrena zirkulatzea. Nolanahi ere, salbuespen gisa, kasu hauetan baimenduta egongo da:

- Oinezkoen zenbait alderditan, ordu-tarte jakinetan. Alkatearen dekretua dela medio finkatuko da alderdi horien zerrenda, segurtasuna, oinezkoen mugikortasunarekiko bateragarritasuna eta espazio publikoen egokitasuna aintzat harturik.
- Espazio horietatik kanpo, oztoporik gabeko 3 metrotik gorako zabalera duten oinezkoen gainerako espazioetan barrena, salbu eta bertan ziklistentzako bide bat badago, zirkulazio abiadura orduko 30 km edo gutxiagora mugatuta badago edo Zirkulazio Araudi Orokorren 159. artikuluan araututako seinalearen bitartez egoitza-kale gisa seinaleztatuta badago.
- Ziklista 14 urtetik beherakoa denean. Halakoetan, nagusi batek edo gehiagok joan ahal izango dute adingabearekin batera.
- Zikloa gidatzen duena mugikortasun murriztua duen pertsona bat denean. Halakoetan, pertsona batek edo gehiagok joan ahal izango dute mugikortasun murriztua duen pertsonarekin batera.

Oinezkoen alderdiak Izaera Urbanoko Bideetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantzaren 10. artikuluan deskribatutakoak dira. Segurtasunari eta espazio publikoaren beste erabilerekiko bateragarritasunari buruzko irizpideak aintzat harturik, eta ziklisten mugikortasuna errazteko xedez, kontrako seinalerik izan ezean, hau

XEDATU DUT

LEHENA.- Bizikleten eta zikloen zirkulazioa baimentzea kale eta plaza hauetako oinezkoen alderdietatik:

- Espainia plaza
- Andre Maria Zuriaren plaza
- Agirre Lehendakariaren kalea
- Gernikako Estatutuaren kalea
- Loma Jeneralaren plaza
- Urrezko Zeledonon plaza
- Posta kalea, Bake kaletik Prado kaleraino
- Independentzia kalea, Foru kaletik Urrezko Zeledonon plazaraino
- San Prudentzio kalea
- Eduardo Dato kalea, Espainia plazatik Manuel Iradier kaleraino
- Foru kalea, Ramon Ortiz de Zarate kaletik Alaba Jeneralaren kaleraino
- Arka plaza
- Diputazio kalea
- Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalea
- Arriagako atea, Errementari kaletik Antepara kaleraino

- Probintzia plaza

.../...

Ordutegi hauetan egongo da baimenduta:

- Azaroaren 1etik martxoaren 31ra arte, 13:00etatik 17:30era eta 21:00etatik 11:00etara.
- Apirilaren 1etik urriaren 31ra arte, 13:00etatik 17:30era eta 22:00etatik 11:00etara.

Dekretu honetan zehaztutako oinezkoen alderdietatik bizikletaz eta zikloz zirkulatzean Ordenantzaren 23. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urtarrilaren 31n.

Alkatea,

Javier Maroto Aranzabal